

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IZEN-ABIZENAK:

NAN:

KIROL-KLUBA:

KARGUA KIROL-KLUBEAN:

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN, HAU ADIERAZTEN DUT

Ordezkatzen dudan entitateak Baztango kirol-klubek 2019ko abuztuaren 16ko eta 2020ko abuztuaren 15eko bitartean ohiko kirol-jarduerak egiteko diru-laguntzak eskatzeko deialdi publikoko **4. artikulua betetzen duela.**

“2019ko abuztuaren 16ko eta 2020ko abuztuaren 15eko bitartean Baztango kirol-klubek ohiko kirol-jarduerak garatzeko diru-laguntzak eskatzeko deialdi publikoa.

4. artikulua. Betekizunak:

1. Eskatzaileak.

- Baztanen egoitza soziala duen kirol-kluba izatea.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan diru-laguntzak eskuratzeko paratutako debekuren batean ere ez egotea.
- Baztango Udalak aitzinetik emandako diru-laguntzen justifikazioak behar den moduan eta egunean izatea
- Zuzenbide publikoaren zerga-bete-beharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ere ordainduak izatea, eta Baztango Udalarekin zorrik ez izatea.

2. Kirol jarduerak.

- Irabazi-asmorik gabeko kirol-jarduera izatea, eta, hortaz, diru-laguntzak ezin izanen dio inola ere diru-laguntza eskatu duen kirol-klubari irabazirik ekarri.
- Diru-laguntzaren xede den jarduerak irekia izan behar du. Baztanen erroldaturiko lagun orok parte hartu ahal izanen du eta horretarako kirol-klub eskatzailearen kide izatea ez da ezinbertzekoa izanen.
- Ez dira baztertzailak izanen arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bertzelako arrazoiengatik.
- Herritar guztiek jardueraren informazio publikoa izanen dute.
- Aurkeztu diren proiektuak gauzatzeko, jarraipena egiteko, justifikatuak eta baloratuak izateko modukoak izanen dira eta horretarako baliabideak edukiko dituzte.
- Jarduerak finantza-bideragarritasuna izanen du. Kirol-klub onuraduna arduratuko da Baztango Udalaren diru-laguntzaren bitartez estali ez den gastua estaltzeaz, eta horretarako finantziazio publiko edota pribatuko bertze iturri batzuez baliatuko da.
- Aurkeztutako proiektua ez da udal eskaintzarekin lehiatuko. Udal eskaintzarekin lehia egiten duten proiektutzat haren helburu antzekoak dituzten aktibitateak hartuko dira, jarduera eskaintzen den hizkuntza edozein dela ere.
- Diru-laguntzaren xedea den jarduera kirol-klub eskatzaileak berak antolatua izanen da, edo kirol-klubak horretan parte-hartuko du.
- Eskolako adinean dauden haurrentako antolatzen diren kirol-jarduerak Udalerriko ikastetxeetako ordutegiz kanpo burutuko dira eta Baztango populazio osoari zuzenduko zaizkie.
- Diru-laguntza horren onuraduna, batez ere, Baztango udalerrria izanen da.
- Ez dira deialdi honen xede izanen ehiza-, arrantza-, motoziklismo- eta automobilismo-modalitateak, modalitatearen egituragatik, praktikaren ezaugarriengatik, eta deialdiaren ezaugarriengatik.
- Ez dute diru-laguntzarik izanen apusturen bat jokoan duten kirol-jarduerak.
- Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza beteko da.”

2020ko _____aren ____ an
sinadura eta kirol-klubaren zigilua